

Gazte migratzaileekin etorkizunera begira

- Irailak 26an #IkusGaitezen topaketa antolatu dute EGK-k, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak
- Testigantzetatik abiatuz gizartean ezarritako mugak gainditzea da asmoa

Bilbon, 2020ko irailaren 16an. Errealitateak eta gizarte egiturek #IkusGaitezen oztopatzen dutela eta, ondorioz, gizarteko talde ezberdinen eta hauek osatzen dituzten gazteek harremanak egiteko zailtasun gehiago dituztela ikusita, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) *Mugen mugetatik, #IkusGaitezen: Gazte migratzaileekin etorkizunera begira* ekitaldia antolatu du Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin datorren irailaren 26an, larunbata, goizeko 11etatik aurrera.

EGK-k adierazi duenez “iritzi eta testigantza ezberdinak” izango dira abiapuntu, ostean talde txikietan “konfiantzazko espazioak” sortuz existitzen diren “programa edo proiektuak aztertze eta erronkak identifikatzeko”. “Gazte migratzaileen bizipenei garrantzia eman nahi diegu eta elkarlanean etorkizunerako gakoak identifikatu gazteok sozializazio eta harremantze prozesu hauetan dugun paperean sakonduz”.

Informazio gehiago:

komunika@egk.eus

688675932 (Jon)

Oharra: Ekitaldia aurrera eramateko osasun eta segurtasun neurriak ezarriko dira, administrazioek emandako aholku eta oharra jarraituz. Besteak beste, musukoa eramatea eta [izen-ematea](#) beharrezkoa izango da.